



ARAUTEGIA

GIMNASTIKA ERRITMIKOA 2022

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Gimnasiako Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2022ko maiatzaren 28an Gasteizko, Abetxuko Kiroldegian. Hona hemen arautegia:

1. PARTAIDETZA:

Infantil, 2008 eta 2009 urteetan jaioetako neska mutilak eta alebin, 2010 eta 2011 urteetan jaioetako neska mutilak.

Partaideen eskola kiroleko lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

2. JOKATZEKO MODUA

➤ Banakako lehiaketa:

Alebinak: ariketa bat eskuak libre direla eta beste bat sokarekin.

Infantilak: uztaiarekin eta pilotarekin ariketa bana.

➤ Taldekako lehiaketa

Alebinak: ariketa bat bost edo sei pilotekin.

Infantilak: ariketa bat bost edo sei uztaiekin.

➤ Taldeen osaera

Lurralde bakoitzak alebin mailan hiru talde aurkez ditzake, bost edo sei gimnasta titular eta ordezkoi batez osatuak, eta infantil mailan ere beste hiru talde, bost edo sei gimnastaz eta ordezkoi batez osatuak. Horretaz gain, talde bakoitzeko ordezkari edo entrenatzaile bat ere egongo da.



Banakako modalitatean, lurralde bakoitzak, kategoria bakoitzeko bosna gimnasta aurkez ditzake gehienez eta ordezkari edo entrenatzaile bana.

Taldeakako lehiaketan kirolari berdinak ezingo du bi talde ezberdinetan parte hartu.

- Ariketa ezberdinen balio teknikoak Gimnasia Erritmikoko Euskal Federaziok argitaratutako arautegi eskolarraren arabera izango dira.
- Gimnasta bakoitzaren entrenatzaileak musika cd bat eraman beharko du, bertan erabilitako musika aurkeztutakoarena baino beste formatu batean izan beharko du erreprodukzioarekin arazoak ekiditeko.

3. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

- Taldekako lehiaketan:
Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.
- Banakako lehiaketan:
Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.
Aparatu bakoitzeko lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.

4. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

5. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua.
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2022ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren deialdia egiteko dena



EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XXXIX JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- e) Eusko Jauriaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak, 2022ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f) Gimnasiako Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, gaztelaniazkoa lehentasuna izango du.